



Recurso 5/2016 errekurtsoa Resolución 4/2016 ebazpena

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

MARDUK INGENIEROS SLk kontratazioari buruzko ezarritako errekurtso berezian (2016ko uztailaren 28an Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren Batzar Orokorrak onartutako Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. faseko obra publikoaren emakida kontratu baldintzen agirien aurka), Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2016ko urriaren 3ko bileran, goian zerrendatzen diren kideek parte hartuta, erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MARDUK INGENIEROS, S.L. contra los pliegos de condiciones del contrato de concesión de obra pública del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa, fase 1, aprobados por la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el 28 de julio de 2016, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 3 de octubre de 2016, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENENGO.- 2016ko abuztuaren 16an Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioan aurkeztutako idatzi baten bidez, (...) jaunak, MARDUK INGENIEROS SLren izenean eta ordezkaritza, errekurtso berezia aurkeztu zuen kontratazio alorrean ebazpen honen goiburuan aipatzen diren agirien aurka.

Errekurtsoak xede du ezabatzea eta eraginik gabe uztea errekurtutako Baldintza Administratibo Partikularren Agiria (BAPA) eta Baldintza Teknikoen Agiria (BTA), eta, ondorioz, ezabatzea eta eraginik gabe uztea kontratazio prozedura. Horrek, kasu honetan, berekin ekartzen du prozedura berri bat deitzea, non errekurtsoan aipatzen diren lege haustek konponduko baitira.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado el día 16 de agosto de 2016 en el registro del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, don (...), actuando en nombre y representación de MARDUK INGENIEROS, S.L., interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos citados en el encabezamiento de esta resolución.

El recurso pretende que se anulen y dejen sin efecto el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el pliego de prescripciones técnicas (PPT) recurridos y, por lo tanto, se anule y deje sin efecto el procedimiento de contratación, procediendo, en su caso, a la convocatoria de un nuevo procedimiento en el que se subsanen las infracciones legales puestas de manifiesto en el recurso.

Berebat Diot formularen bidez, orobat eskatzen da

Mediante otrosí se solicita asimismo que se

kontratazio prozeduraren tramitazioa etetea, kontuan izanda errekurtsua onartuz gero sor dakiekeen kalte larri eta konponezina, bai errekurtsogileari, bai kontratua esleitzen zaien hirugarren lizitatzaleei ere.

Idatzi horrekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu da: esku hartzen duen pertsonaren ordezkari egiaztatzen duen agiria, kontratuaren agiriak, eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziolari zuzendutako errekurtsuaren alde aurreko iragarkiaren kopia, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuak 44.1. artikuluan jasotzen duenari jarraikiz.

BIGARREN.- Abuztuaren 18an, Auzitegiak espedientea eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakariaren txostena jaso zituen.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENENGO.- Errekurtsu berezi hau arautze armonizatupeko obra publiko baten emakida esleitzeko kontratu baten agirien aurka ezarri da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 14.1 artikuluan jasotzen baitira.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtsu berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko 40. artikuluko 1.a) eta 2.a) ataletan.

1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, kontsortzioen araubidea arautzen duenak, hogeigarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen atxikipen irizpideei jarraikiz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundira atxikitako kontsortzio bat da.

Errekurtsu horren ardura auzitegi honen eskumena da, 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak, Kontratazio Alorreko

suspenda el procedimiento de adjudicación del contrato, teniendo en cuenta los perjuicios graves e irreparables que, de estimarse el recurso, se podrían causar tanto a la recurrente como a terceros licitadores que hubieran resultado adjudicatarios del contrato.

Al escrito de interposición se acompañan el documento que acredita la representación de la persona interviniente, los pliegos del contrato, así como copia del anuncio previo de interposición del recurso dirigido al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, tal como exige el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSF).

SEGUNDO.- El 18 de agosto se recibió en el Tribunal el expediente y el informe del Presidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.


FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de concesión de obra pública sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 14.1 TRLCSF.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 40 TRLCSF.

De acuerdo con los criterios de adscripción establecidos en la disposición adicional vigésima de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que regula el régimen jurídico de los consorcios, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa es un consorcio adscrito a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En consecuencia, la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto



Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak, 2.1 artikuluan emandako ahalmenaren arabera.

Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

BIGARREN.- Aztertu behar dugun lehen alderdia, hartara errekurtsoa onartzeko baldintzak gertatzen direla aztertzeko, MARDUK INGENIEROS SLren legitimazioa da erreferentziazko kontratazioa arautzen duten agiriak inpregnatzeko; izan ere, kontratazio organoaren arabera, ez da nahikoa zuritu legitimazio hori, ez baitira azaltzen sozietate errekurtsogilearen egiazko ezaugarriak (funtz propioak, gaitasun ekonomikoa, langileak, eskarmentua...).

SEGUNDO.- El primer aspecto que debemos abordar, en orden a analizar la concurrencia de los requisitos legalmente exigidos para la admisión del recurso, es el relativo a la legitimación de la empresa MARDUK INGENIEROS, S.L. para impugnar los pliegos que rigen la contratación de referencia, dado que, a juicio del órgano de contratación, no ha justificado suficientemente dicha legitimación porque no explica las características reales de la sociedad recurrente (fondos propios, capacidad económica, personal, experiencia...).

Gai honi dagokionez, eta aztertzeko xedez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 42. artikulua hartu dugu aintzat lehenik, zeinak hau baitio legitimazioari buruz: *"Errekurtsoaren xede diren erabakiek kaltetu dituzten edo kalte ditzaketen eskubide edo interes legitimoen jabe diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek jar dezakete kontratazio arloko errekurtso berezia"*.

Sobre esta cuestión, y para su análisis, hemos de comenzar por referirnos al artículo 42 TRLCSP que en relación a la legitimación para recurrir dispone: *"Podrá interponer el correspondiente recurso especial en materia de contratación toda persona física o jurídica cuyos derechos o intereses legítimos se hayan visto perjudicados o puedan resultar afectados por las decisiones objeto de recurso"*.

Interes legitimoaren kontzeptua zehazki dago definitua jurisprudentzia konstituzionalean eta administrazioarekiko auzietan, eta, haren arabera, errekurtsogileak frogatu behar du interes kualifikatua duela, zehatza eta egiazkoa auzitan dagon objektuarekiko, eta haren emaitzak bere inguru juridikoan modu garbian eta nahikoan eragin dezakeela; eta ez da aski, errekurtsogilearen legitimaziorako, legetasun ustez apurtuaren interes arrunt eta orokorra, ordenamendu juridikoak herri ekintza onartzen duen kasu mugatuetan izan ezik, zeina ez baita gertatzen kontratazio publikoan.

El concepto de interés legítimo se ha definido de forma exhaustiva por la jurisprudencia constitucional y contencioso-administrativa, según la cual el recurrente debe probar que tiene un interés cualificado, específico y real por su ligazón al objeto del litigio, y que su resultado puede repercutir de forma clara y suficiente en su esfera jurídica, no bastando a los efectos de la legitimación de la recurrente el interés simple y general de la eventual restauración de la legalidad supuestamente vulnerada, salvo en los limitados casos en los que el ordenamiento jurídico reconoce la acción popular, lo que no acontece en materia de contratación pública.

Horrela, Auzitegi Konstituzionalak hainbat epaietan (2007ko martxoaren 12koa, adibidez) zehaztu du, Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikulua aipagai duen interes legitimoari dagokionez, *"ezaugarri du harreman material zalantzarik gabeko bat izatea subjektuaren eta xede den objektuaren artean (impugnaturako"*

Así, el Tribunal Constitucional en numerosas sentencias, como en la 52/2007, de 12 de marzo, ha manifestado, en relación con el interés legítimo al que se refiere el artículo 24.1 de la Constitución Española, que *"se caracteriza como una relación material unívoca entre el sujeto y el objeto de la pretensión (acto o disposición impugnados), de tal"*

ekintza edo xedapena), hots, ezabatzeak automatikoki izatea aldeko eragin bat (etekin bat) edo kontrako eragin bat (kalte bat), egungoa edo etorkizunekoa baina ziurra, eta ulertu behar da harreman horrek interes bat izan behar duela, propioa, kalifikatua eta zehatza, egungo eta egiazkoa (ez potentziala edo balizkoa). Abantaila baten edo erabilpen baten titulartasun potentzial bat da, ez ondare edukikoa nahitaez, auzijartzailearen aldekoa, gauzatzen dena auziak arrakasta badu. Edo, bestela esanda, interes legitimoa bilatzen den erreparaziotik datorren abantaila edo erabilpen juridikoa da (2000ko urriaren 30eko Auzitegi Konstituzionalaren 252/2000 epaia, FJ 3; eta Epaitegi Konstituzionalaren 2006ko martxoaren 13ko 73/2006 Epaia, FJ 4; eta Epaitegi Konstituzionalaren 2005eko otsailaren 15eko 28/2005 epaia, sindikatu bati buruzkoa, FJ 3)".

Kontratu errekurtsoen organoen doktrinak, interes legitimoaren definizioa interpretatzean, aintzat hartu ditu lizitatzailleak eta balizko lizitatzailleak, eta esleipenaren prozedurarekin lotura erakusten duten hirugarren ez lizitatzailleak. Baina kasu guztietan berariazko interes eragindako edo kaltetu bat dagoela erakutsi behar da, esleipenaren markoaren barruan botere esleitzaileak eragindakoa.

Aztertu behar da, beraz, kasu honetan MARDUK INGENIEROS SLk ba ote duen interes legitimorik zentzu propio berezi eta kalifikatuan aurkeztutako errekurtsuan, hots, pretentsioa gauzatzen duenak abantaila egoera bat edo erabilpen juridikoko egoera bat duela, eta gauzatuko litzakeena, aurrera ateraz gero, izaera material edo juridikoko etekin bat lortzean, edo kalte bat saihestean, betiere etekin hori edo kalte hori saihestea egiazkoa bada eta ez balizkoa bakarrik.

Enpresa errekurtsogileak bere legitimazioa Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 42. artikuluan oinarritzen du, eta aipatu ondoren arau horren inguruan administrazio auzitegiek egin duten interpretazio zabala, hirugarren ez lizitatzaillearen errekurtsu bereziak

forma que su anulación produzca automáticamente un efecto positivo (beneficio) o negativo (perjuicio) actual o futuro pero cierto, debiendo entenderse tal relación referida a un interés en sentido propio, cualificado y específico, actual y real (no potencial o hipotético). Se trata de la titularidad potencial de una ventaja o de una utilidad jurídica, no necesariamente de contenido patrimonial, por parte de quien ejercita la pretensión, que se materializaría de prosperar ésta. O, lo que es lo mismo, el interés legítimo es cualquier ventaja o utilidad jurídica derivada de la reparación pretendida (SSTC 252/2000, de 30 de octubre, FJ 3; 173/2004, de 18 de octubre, FJ 3; y 73/2006, de 13 de marzo, FJ 4; con relación a un sindicato, STC 28/2005, de 14 de febrero, FJ 3)".

La doctrina de los órganos de recursos contractuales, al interpretar esa definición de interés legítimo, ha considerado que incluye tanto a licitadores o posibles licitadores como a terceros no licitadores que demuestren un vínculo con el procedimiento de adjudicación. Pero en todos los casos hay que demostrar la existencia de un interés legítimo afectado o perjudicado por la actuación del poder adjudicador en el marco de una licitación.

Procede analizar, por tanto, si en el presente supuesto MARDUK INGENIEROS, S.L., detenta ese interés legítimo en sentido propio, específico y cualificado en el recurso presentado, que equivale a la titularidad de una posición de ventaja o de utilidad jurídica por parte de quien ejercita la pretensión, y que se materializaría, de prosperar ésta, en la obtención de un beneficio de índole material o jurídico o en la evitación de un perjuicio, con tal que la obtención de ese beneficio o evitación del perjuicio sea cierta y no meramente hipotética.

La empresa recurrente funda su legitimación en el art. 42 TRLCSP y, tras referirse a la interpretación amplia que los tribunales administrativos de recursos contractuales han realizado de dicho precepto, admitiendo la interposición de recursos especiales por parte de terceros no licitadores, ni



onartuz, lizitaziora aurkezteko interesatuak izan gabe, betiere kreditatzen badute interes legítimo bat doktrina konstituzionalak eta jurisprudentziak ezarritako moduan, bakarrik esaten du baldintza horiek betetzen dituela kontratu horretarako balizko lizitazzailea den aldetik.

Errekurtsogileak, lege hauste hauetan oinarritzen du agiriak eta kontratazio prozedura ezabatzeko eskatzeko inpuñazio zioak:

1.- Kontratuaren kalifikazio okerra, obra publikoa emateko kontratu gisa kalifikatzen denez; izan ere, emakidadunari ez zaio operazio arriskuaren berri ematen (2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE Zuzentaraua, emakida kontratuak esleitzeari buruzkoa).

2.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren baldintzak ez dira proportzionalak kontratuaren xedearekiko, eta horrek ez ditu betetzen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 62.2 artikulua eta lizitazioetarako konkurrentzia eta askatasun printzipioak.

3.- Kaudimen tekniko eta profesionalaren baldintzen konfigurazioa ez dator bat indarrean dauden legeekin, eta lizitazioetara aurkezteko askatasun printzipioa apurtzen du.

4. Eskaintza tekniko onartzeko atalase bat ezartzeak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 150.4 artikulua apurtzen du, eta arrazoirik gabe apurtzen ditu lehiakortasuna eta kontratazio publikoaren oinarritzko printzipioak.

5.- Eskaintzak aurkezteko epe ez nahikoa.

Inpuñatzeko zioen azalpen eta garapenean, MARDUK INGENIEROS SLk ez du ezer esaten lehiaketa honetan, zeinaren agiriak inpuñatzen baititu, parte hartzeko asmoaren inguruan, ezta kontratuaren xedea burutzeko duen gaitasunaren inguruan ere. Orobat ezer ez dio lege hauste horiek, edo batzuek, lizitaziora aurkezteko dituen aukerak murriztu egiten ote dizkioten, edo

interesados en concurrir a la licitación, siempre que se acredite un interés legítimo en los términos establecidos por la doctrina constitucional y la jurisprudencia, se limita a señalar que cumple con dichos requisitos en la medida en que es una potencial licitadora del contrato en cuestión.

La recurrente basa los motivos de impugnación por los que solicita la anulación de los pliegos y del procedimiento de contratación en las siguientes infracciones legales:

1.- Error en la calificación del contrato como un contrato de concesión de obra pública, debido a que no se transmite al concesionario el riesgo operacional, de acuerdo con lo previsto en la Directiva 2014/23/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, relativa a la adjudicación de contratos de concesión.

2.- Los requisitos de solvencia económica y financiera no son proporcionales al objeto del contrato, lo que infringe el art. 62.2 TRLCSP y los principios de concurrencia y libertad de acceso a las licitaciones.

3.- La configuración de los requisitos de solvencia técnica y profesional no se ajusta a la regulación legal en vigor e infringe el principio de libertad de acceso a las licitaciones.

4.- La fijación de un umbral mínimo para la admisión de la oferta técnica infringe el art. 150.4 TRLCSP y restringe injustificadamente la competencia y los principios básicos de la contratación pública.

5.- Insuficiencia del plazo para la presentación de las ofertas.

En la exposición y desarrollo de los referidos motivos de impugnación, MARDUK INGENIEROS, S.L. no dice nada sobre su intención de participar en el concurso cuyos pliegos impugna, ni sobre su aptitud para realizar el objeto del contrato. Tampoco se pronuncia sobre si tales infracciones, o alguna de ellas en particular, restringen sus posibilidades de acceder

lizitazioan berdintasunean parte hartzeko aukerak kentzen ote dizkioten kalte bat eraginez; horrela balitz, errekurtsioa onartuz gero parte hartzeko moduan egongo litzateke eta, ondorioz, kalte hori saihestuko litzateke.

Beraz, errekurtsioan ez dago inolako loturarik inpregnatzeko zioen eta agiriek errekurtsogileari eragingo lioketen balizko kalte baten artean. Errekurtsogileak ez du aipatzen errekurritutako lizitazioak zein eskubide edo interes legitimo kaltetu diezazkion.

Epaitegi honek orobat ez du ikusten zein abantaila juridiko egiazko egokituko litzaiokeen errekurtsogileari bere eskaera onartuz gero, kontratuaren ezaugarriei eta sozietate errekurtsogileari begiratuta.

Horrela, kontratuaren xedea, BAPAren 2. klausulan definitzen den moduan, proiektua idaztea, obra-zuzendaritza baitaratzea, eraikuntzalanak gauzatzea eta Gipuzkoako Ingurumen Gunea, 1. FASEA (aurrerantzean GIG 1) finantzatu, abian jarri eta mantentzea, BATEk ezartzen dituzten baldintzatan.

Kontratuaren xedea betetzeko ezinbestekoa da prestazio hauek burutzea:

- GIG 1 aren ingeniari osoa garatzea, eraikuntza proiektu bat eratzea barne.
- Proiektu ofizialak eta, oro har, obran eragina duten lizentzia, baimen eta onarpenen eskaerak aurkezteko eta GIG 1 gunea abiarazi eta jardunean ipintzeko dokumentazio guztia prestatzea nahiz lizentzia, baimen eta onarpen horiek eskuratzea.
- Obretako zuzendaritza fakultatiboa: obren gauzapena zuzentzea eta segurtasun- eta osasun sistemak antolatzea, kalitate eta ingurumen arloa zuzentzea.
- GIG 1 gunea eraikitzea, entseguak, hustutze

a la licitación, o si le impiden participar en un plano de igualdad en la licitación, causándole un perjuicio, de manera que una eventual estimación del recurso pudiera permitir su participación y, por tanto, evitar ese perjuicio.

Existe, por tanto, en el recurso una ausencia de toda vinculación entre los motivos de impugnación alegados y el eventual perjuicio que la redacción de los pliegos impugnados le infieren a la recurrente, quien no menciona siquiera los derechos o intereses legítimos que podrían verse afectados por la licitación recurrida.

Este Tribunal tampoco alcanza a ver qué ventaja jurídica cierta correspondería a la recurrente en el caso de que fuera estimada su pretensión, en atención a las características del contrato y de la propia sociedad recurrente.

Así, el objeto del contrato, que se define en la cláusula 2 del PCAP, es la redacción del proyecto, la asunción de la dirección de obra, la ejecución de las obras de construcción, así como la financiación, operación y mantenimiento del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa, Fase 1 (en adelante, CMG 1), en las condiciones exigidas por el PPT.

El cumplimiento del objeto del contrato incluye la realización de las siguientes prestaciones:

- El desarrollo de la ingeniería completa del CMG 1, incluyendo la elaboración de un proyecto constructivo.
- La preparación de toda la documentación necesaria para la presentación de los proyectos oficiales y solicitudes de licencias, permisos y autorizaciones, en general, que afecten a las obras, su puesta en marcha y operación del CMG 1, así como la obtención de dichas licencias, permisos y autorizaciones.
- La dirección facultativa de las obras: la dirección de la ejecución de la obra, la organización de los sistemas de seguridad y salud, y la dirección de calidad y medio ambiente.
- La construcción del CMG 1, así como la



probak, funtzionamentu probak eta errendimendu eta berne probak egitea.

- GIG 1 gunea osatzen duten ekipamendu, sistema eta instalazio guztien fabrikazioa edota hornidura, pilaketa eta muntaketa burutzea.

- GIG 1 gunea osatzen duten instalazioak abian jarri eta mantentzea. Zehazki, kontratuaren xede da instalazioetan hiri-hondakinak tratatzea.

- GIG 1 gunea eraikitzeak nahiz abian jarri eta mantentzetik eratorritako kostu guztiak finantzatzea.

Deskribatutako prestazioak kontratuko bi egikaritze-fasetan multzokatzen dira: lehena da proiektua idaztea, obra-zuzendaritza, eraikuntza eta abian jartzea; eta bigarrena, operazioa eta instalazioen mantenua.

Kontratuaren balio estimatua, obren balioztat kuantifikatzen dena, eta Administrazio Kontratatzaileak kontratua gauzatu ahal izateko kontratistaren esku jarritako derrigorrezko horniduren balioa 217,583 milioi eurokoa da (BEZ gabe), BAPAREN 6. klausulak jasotzen duen banaketari jarraikiz.

Lizitazio honetara aurkezteko ezinbesteko betekizun izango da alde zuzenetik behin-behineko berme bat eratzea. Berme hori 4 milioi euroko zenbatekoarekin eratuko da, BEZ gabe, BAPAREN 17. klausularen arabera.

Orobat, lizitatuzaileek kaudimen ekonomiko eta finantzarioa justifikatzeko, aurkeztu beharko dituzte, batetik, hiru urteko negozio-bolumen orokorrari buruzko adierazpena, 300 milioi euro kopurua berdindu edo gaitzen duela egiaztatzea, batera kalkulatuta; eta, bestetik, berezko funtsen adierazpena, 2015eko ekitaldian funts horiek 120 milioi eurotik gorakoak izan zirela egiaztatzea. Halaber, ikuskatutako azken ekitaldiko balantzearen pasiboan metatutako aurreko ekitaldietako erreserbak negatiboak ez

ejecución de los ensayos, pruebas de vacío, pruebas de funcionamiento y pruebas de rendimiento y garantía.

- La fabricación y/o suministro, acopio y montaje de todos los equipos, sistemas e instalaciones que integran el CMG 1.

- La operación y mantenimiento de las instalaciones que integran el CMG 1 y, en concreto, el tratamiento en las instalaciones de los residuos urbanos.

- La financiación de todos los costes derivados tanto de la construcción como de la operación y mantenimiento del CMG 1.

Las prestaciones descritas se agrupan en dos fases de ejecución del contrato: la primera abarca la redacción del proyecto, la dirección de obra y su construcción y puesta en marcha; y la segunda, la operación y mantenimiento de las instalaciones.

El valor estimado del contrato, cuantificado como el valor de las obras, así como el valor de los suministros necesarios para la ejecución del contrato que hayan sido puestos a disposición del contratista por la Administración contratante, asciende a 217,583 millones de euros, IVA excluido, de conformidad con el desglose recogido en la cláusula 6 del PCAP.

Para concurrir a la licitación se establece como requisito necesario acreditar la constitución previa de una garantía provisional por importe de 4 millones de euros, IVA excluido, según la cláusula 17 del PCAP.

Asimismo, se exige acreditar una solvencia económica y financiera de un volumen global de negocios anual igual o superior a 300 millones de euros calculados conjuntamente en los tres últimos ejercicios, y fondos propios superiores a 120 millones de euros en el ejercicio 2015, así como que las reservas acumuladas de los ejercicios anteriores en el pasivo del balance del último ejercicio auditado no sean negativas, según la cláusula 18.2.2 del PCAP.

izatea eskatuko da. Hori guztia BAPAre 18.2.2 klausulari jarraikiz.

Kaudimen tekniko eta profesionalari dagokionez, BAPAre 18.2.3 klausulak eskatzen du:

a) Esperientzia tratamendu mekaniko biologikoko planta (TMB) baten eta hiri hondakinak errausteko bi linearen diseinu eta eraikuntzan. Azken 10 urtetan eraiki eta amaitutakoak hartuko dira kontuan, betiere agirian eskatzen diren baldintzak betetzen baditu.

b) Esperientzia balorizazio energetikorako planta baten operazio eta mantenuan. Horretarako, operazio hori azken 10 urtean burutua izan beharko da, gutxienez, errausketa bidezko hiri-hondakinen balorizazio energetikorako plantak (BEP) ustiatzeko zerbitzuak emateko edo bere irismenaren barnean zerbitzu hori barneratzen duen kontratu bat sinatuta.

c) Esperientzia azken 10 urtean edozein tipologiako gutxienez bi azpiegitura publikoren eraikuntza, ustiapen eta finantzaketan PPP eskemen arabera. Gainera, bakoitzaren inbertsio osoa 100 milioi eurokoa izan beharko da.

d) Agirietan eskatzen den gutxieneko esperientzia profesionala. Hori kreditatzeko, lizitatzailleek kontratua egikartzeko adituen zerrenda bat erabilgarri dutela egiaztatu beharko dute. Zerrenda hori hiri-hondakinen arloko profesionalekin, proiektu eta obretako kudeaketa arloko profesionalekin, eta hondakinak kudeatzeko plantetako edo energia elektrikoa ekoizteko zentral termikoetako zuzendaritzako profesionalekin osatu beharko da.

Bestalde, BAPAre 25.1 klausulari jarraikiz, esleipendunak proiektua garatzeko beharrezkoak diren inbertsio guztiak finantzatu beharko ditu derrigorrez, bere gain eta kontura printzipio orokor modura. Finantzaketa hori hirugarrenen baliabideen kargura egin dezake gehienbat zor modura, betiere, gutxienez, inbertsioen % 20 akziodunen berezko baliabideekin finantzatzen badira. Portzentaje horretarako % 10 gutxienez kapital sozial modura izan beharko da ezinbestean.

En cuanto a la solvencia técnica y profesional, la cláusula 18.2.3 del PCAP exige:

a) Experiencia en diseño y construcción de una planta de tratamiento mecánico biológico (TMB) y dos líneas de incineración de residuos urbanos, cuya construcción se haya terminado en los últimos 10 años y cumpla los requisitos exigidos en el pliego.

b) Experiencia en la operación y mantenimiento de una planta de valorización energética en los últimos 10 años, mediante la suscripción de, al menos, un contrato de prestación de servicios de explotación de plantas de valorización energética (PVE) de residuos urbanos mediante incineración, o que incluya dicho servicio dentro de su alcance, y cumpla los requisitos exigidos en el pliego.

c) Experiencia en la financiación, construcción y explotación de, al menos, dos infraestructuras públicas de cualquier tipología bajo esquemas PPP en los últimos 10 años, de un importe de inversión total, como mínimo, de 100 millones de euros cada una.

d) Experiencia profesional mínima exigida en los pliegos que se acreditará con la disponibilidad de contar para la ejecución del contrato con una lista de expertos profesionales en el campo de residuos urbanos, de gestión de proyectos y obras, así como de dirección de plantas de gestión de residuos o centrales térmicas de generación de energía eléctrica.

Por su parte, según la cláusula 25.1 del PCAP, la sociedad concesionaria estará obligada a financiar la totalidad de las inversiones necesarias para el desarrollo del proyecto, a su riesgo y ventura como principio general, pudiendo hacerlo mayoritariamente con cargo a recursos de terceros en forma de deuda, siempre que al menos un 20% de las inversiones sean financiadas con recursos propios de los accionistas, de los que al menos un 10% deberá ser en forma de capital social.



Sozietate errekurtsogilea, MARDUK INGENIEROS SL, agerleak eta beste batek eratu zuten, errekurtsoarekin batera aurkezten den eskritura publikoaren arabera, 2013ko abuztuaren 12an, 3.010 euroko kapital sozial batekin eta xede sozial honekin (Estatutu Sozialen 2. artikulua):

"Lan hauek: ingeniari-tza, aholkulari-tza, proiektuak egitea, lizitazioetarako azterketak eta eskaintzak egitea, zuzendaritza fakultatiboa, lanak gauzatzeta.

Obra eta zerbitzuak: errepide, trenbide, presa, portu, urbanizazio eta gainerako obra zibilen eraikuntza, artaketa, zerbitzuak eta mantentze lanak; eraikin edo instalazio, direla etxebizitza, eraikin publiko, bulego, ekipamendu, kiroletxe, nabe industrial eta abarren eraikuntza, artaketa, zerbitzuak eta mantentze lanak; lorategigintza, ureztatze, iturri eta abarren eraikuntza, artaketa, zerbitzuak eta mantentze lanak; Facility Management, Facility Services, garbiketa, segurtasuna eta abar eraikin, bulego eta abarren mantentze lanak; bideen garbiketa eta zonalde berdeen mantentze lanak; hondakinak, ur bidezko garbiketak, hagak kentzeak eta abar; eraikinen garbiketa.

Eta lan hauek: eraikuntzarekin zerikusia duten produktuak komertzializatzea; erakin eta azpiegituren erreforma mota guztiak (...)"

Ikusita zein diren sozietate errekurtsogilearen ezaugarriak eta zein inpugnatzen den kontratuarenak, nekez esan liteke errekurtsogileak aukera duenik inpugnatu duena bezalako lizitazio batean, ez bakarrik errekurritutako kaudimen baldintzengatik, baita gaitasun ekonomiko eta finantzarioarengatik ere, zailtasun teknikoagatik, azpiegituragatik eta kontratuaren xedeak berekin dakarren arriskuagatik, non lizitatzailleak 217 milioiko inbertsio bat egin behar baitu 3 urtean.

Beraz, ez da antzematen, errekurtsogileari

La sociedad recurrente, MARDUK INGENIEROS, S.L., se constituyó, según la escritura pública que acompaña a su recurso, el 12 de agosto de 2013, por el compareciente y otra persona, con un capital social de 3.010 euros y el siguiente objeto social (art. 2º de los Estatutos Sociales):

"Los trabajos de: Ingeniería, consultoría, redacción de Proyectos, estudios y elaboración de ofertas para licitaciones, dirección facultativa, ejecución de los trabajos.

En obras y servicios de: construcción, conservación, servicios y mantenimiento de infraestructuras de carreteras, líneas de ferrocarril, presas, puertos, urbanizaciones y resto de obra civil, construcción, conservación, servicios y mantenimiento de edificios o instalaciones, tanto de viviendas, edificios públicos, oficinas, equipamiento, polideportivos, naves industriales, etc., construcción, conservación, servicios y mantenimiento de jardinería, riegos, fuentes, etc.; Facility Management, Facility Services, limpieza, seguridad, etc. en mantenimiento de edificios, oficinas, etc.; limpieza viaria y mantenimiento de zonas verdes; retirada de residuos, baldeos, desatracos, etc.; limpieza de edificios.

Además de los trabajos de: comercialización de productos relacionados con la construcción; realización de todo tipo de reformas en edificios e infraestructuras (...)"

Así, a la vista de las características de la sociedad recurrente y del contrato cuyos pliegos impugna, mal puede sostenerse que la recurrente pueda aspirar a concurrir a una licitación como la impugnada, no sólo por los requisitos de solvencia recurridos, sino también por la capacidad económica y financiera, complejidad técnica, infraestructura y riesgo que conlleva el objeto del contrato, en el que el licitador debe realizar una inversión de 217 millones de euros en apenas 3 años.

Por todo ello, no se advierte en la recurrente

dagokionez, inolako harreman edo loturarik agiriak eta kontratazio prozedura ezabatzeko eskaeraren eta zentzu propioko interes kualifikatu eta zehatz baten artean, zeinak, errekurtsioak aurrera eginez gero, berekin ekarriko bailuke errekurtsogilearentzat onura material bat edo kalte bat saihestea. Hau da, ez da ikusten errekurtsogilearen beste interesik, ez bada legearen defentsa hutsa, eta hori ez da, esanda dagoen bezala, elementu legitimatzaile nahikoa.

Laburbilduz, begien bistakoa da ez dela betetzen legitimazio aktiboaren balditza, kontratazio alorrean beti bete beharrekoa errekurtsio berezia jartzeko, eta ondorioz ez da onartu behar.

HIRUGARREN.- Ondorioz, ez dago zertan sartu alegatutako inpregnazioaren zioetan, eta ez da beharrezkoa kontratazio prozedura eteteko eskaera ebatzea, etete horrek ezin baitu eragin inola ere interesdunek eskaintzak eta proposamenak egiten duten epean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 43.4 artikuluari jarraikiz, eta epe hori, 2016ko irailaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarritako luzapenaren ondoren, ez da amaituko datorren urriaren 27ra arte.

LAUGARREN.- Errekurtsioan ez dugu antzeman, Kontratuen Legeko 47.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, auzitegi hau errekurtsogileei isuna jartzera bultzatzen lezakeen fedetxe edo ausarkeriarik.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsioetarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

Ez onartzea MARDUK INGENIEROS, S.L. enpresak jarritako kontratazio-arloko errekurtsio berezia.

Kontratuen Legeko 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko

relación o vínculo alguno entre su pretensión de anular y dejar sin efecto los pliegos y el procedimiento de contratación, y un interés en sentido propio, cualificado o específico que, de prosperar esa pretensión, pudiera concretarse en obtener un beneficio material o en evitar un perjuicio. Esto es, no se percibe en la recurrente un interés que vaya más allá de la mera defensa de la legalidad, lo que no basta, según hemos dicho, como elemento legitimador suficiente.

En definitiva, resulta evidente la carencia del requisito de legitimación activa, siempre exigible para interponer el recurso especial en materia de contratación, lo que conduce a acordar su inadmisión.

TERCERO.- Al concurrir, pues, la referida causa de inadmisión del recurso, no procede entrar a analizar los motivos de impugnación alegados, ni tampoco es preciso pronunciarse sobre la solicitud de suspensión del procedimiento de contratación, dado que la suspensión no puede afectar en ningún caso al plazo concedido para la presentación de ofertas o proposiciones por los interesados, según dispone el art. 43.4 TRLCSP, y ese plazo, tras la prórroga anunciada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 26 de septiembre de 2016, no finaliza hasta el próximo día 27 de octubre.

CUARTO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la empresa recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 47.5 TRLCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales


ACUERDA

Inadmitir el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MARDUK INGENIEROS, S.L.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el

Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako
Foru Auzitegi Administratiboa

Tribunal Administrativo Foral de Recursos
Contractuales



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den plazo de dos meses contado a partir del día egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko siguiente al de su notificación.
epean.

Donostia, 2016ko urriaren 3a / San Sebastián, 3 de octubre de 2016.